

# Burujabetza energetikoa

ENERGIA SUBIRANOTASUNA



**OIER ETXEBARRIA** GOIENER

IRUDIA: STORYSET / FREEPIK

Gaurkoan aipu batekin hasiko dut nire hausnarketa: "Euskal Herriaren burujabetzari buruz hitz egiteko, beste herrialdeekiko dugun menpekotasun energetikoa kontutan izan behar dugu. Izan ere, herri baten burujabetza eta erabakitze-ahalmena zuzenki erlazionatuta dago dituen baliabideen eta energia sortzeko gaitasunarekin".

Mundua doan bezala joanda eta pertsonak nahiz komunitateak ahalik eta erresilienteenak izan behar gara kontutan hartuta, burujabetza landu beharra daukagula gero eta garbiago dago. Burujabetza hori maila guztietan lortu beharko dugu, baina hemen energiarena landuko dut eta, batez ere, lurraldeari dagokiona; ez hainbeste gobernantza, jabetza eta teknologiarekikoa, horiek ere landu beharko ditugula ahaztu barik.

## Testuingurua argitzeko gakoak

Euskal Herrian kontsumitzen dugun energiaren %90 inguru kanpotik ekartzen dugu, erregai fosil (mugikortasunean, industrian, argindar generazioan eta berokuntzan, batez ere) eta argindar forman. Menpekotasun ia osoa daukagu kanpotik datorkigun

energiarekiko. Energiaren eskaintzak eskaerari jarraitzen badio eta gure diru kontuetan (inportazio eta esportazioen arteko orekan) arazorik ez bagenu, hori ez litzateke arazo handiegia izango (ekonomia kapitalistaren ikuspegitik, behintzat). Dena den, mundu mailan azken urteetan ezagutzen ari garen gerrek erakusten duten bezala, eskaintza eta eskaeraren arteko tentsio handiak daude, munduko toki askotan, baina batez ere Ekialde Hurbileko gatazkek (Pakistan, Afganistan, Irak, Siria, Gaza...) eta Ukrainakoak energiaren alorrekin eta bereziki erregai

fosilekin zerikusia dutela jakina da.

Hori gutxi ez eta, gainera, erregai fosilen produkzioaren piko gaingaituta edo gaingaitzear gaudela jakina da. Munduko Energia Agentziak ere horrela esaten du bere azken txostenean.

Politika horiek jarraituta, munduko tenperatura 1,5°C baino dezentegiago igokoenez, horiek baino politika ausartagoak beharko ditugu, eta erregai fosilen jaitsiera handiagoa izan beharko da.


## Nola landu?

Hori guztia kontuan izanda, burujabetza energetikoa

## Hazkunde osteko aroaren eszenatokiak

ITURRIA: ARITZ OTXANDIANO

BARNE PRODUKTU  
GORDINA



## KONTSUMO BANAKETA JUSTUA IZATEKO BAKOITZARI ZENBAT ENERGIA DAGOKION DEFINITU BEHAR DA



lantzea ezinbesteko kontua bihurtu zaigu. Lehenik eta behin, %100eko burujabetza horrek zer suposatuko duen aztertu eta kalkulatu beharko dugu; agian, hain urruti ez dugulako joan nahi edo ahal izango (edo bai). Erantzun beharreko lehenengo galderak hauek dira: zein da "energia burujabe" definitu nahi dugun lurraldea? Zenbat energia sortu dezakegu lurralde horretan modu jasangarrian? Sortu nahi dugun energia horrek zenbateko eragina izango du gure lurraldearen bioaniztasunean? Beste burujabetza batzuekin izango du talkarik, hala nola elikadurarenarekin? Zein da ingurugiroan (airearen kutsadura, zarata...) izango duen eragina?

Aurreko galderen erantzunek zenbat sortu ahal izango dugun zehaztuko dutenez, gure kontsumo maila ere definituko dute, burujabe izan nahi izateak ondorioak ekarriko dituelako. Beste batzuen artean, kontsumitu ahal izango dugun energiaren zenbatekoa ezagutuko dugu, eta energia hori kontsumitzaileen artean banatu beharko dugu.

### **Energiaren kontsumo banaketa**

Banaketa hori justua eta denontzat izateko, beste galdera potolo bat datorkit: energiaren kontsumoaren banaketa nola egingo dugu

mugikortasun, industria, berokuntza eta argindar behar orokorretarako? Banaketaren arabera, industria alorrean produzitu ahal izango duguna (berari lotutako lanpostuak), mugikortasunerako erabili ahal izango duguna (norbanakoak batetik bestera eta produktuak hemendik kanpora eta kanpotik hona mugitu ahal izateko), etxeak zein tenperaturatan izan ahal izango ditugun (edo zenbateraino isolatu beharko ditugun) eta bestelako kontsumoetarako beharko duguna definituko dugu.

Hori guztia ondo egiteko, denontzat eta justua izateko, norbanako bakoitzari zenbat energia dagokion ondo definitzea gakoa izango da. Hori, baina, ez dakit posible izango den kontsumo mugak ezarri barik. Edo norberaren ahalmen ekonomikoen arabera banatzea erabakiko dugu?

Aukera bat da, baina ez dakit egokiena den, banaketa justua izateko zailtasunak ekarriko baititu. Energia oinarritzko behar bat da, baina zenbat energia behar dugu bizitza duin bat ziurtatzeko?

Aritz Otxandianok energiari buruz idatzi duen iritzi artikulua batean esaten duen moduan, "hazkunde osteko aroa edo desazkunde prozesu bat imajinatzerakoan, eszenatoki ezberdinak irudikatu daitezke, aurreko orriko grafikoan ikusi daitekeen bezala".

Badaukagu zer hausnartu eta zer erabaki, eta horri heldu behar diogu. Bestela, beste batzuek hartuko dituzte erabakiak, eta agian ez dira gure gustukoak izango, edo, are okerrago, ez dira justuak eta denontzat izango. Ezer ez erabakitzeak ere ondorioak izango dituelako, egin dezagun lan! ■■■